

Oiartzun

OIARTZUN, GOGOR ERANTZUN



Egileak:

"Gu" taldea

LH 5



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

ARLEPO



Aurkezpena

Kaixo, lagunak! Ni Arlepo naiz.

Os
o ausarta naiz, erronkei aurre egi

Zatoz eta gozatu gure herriaz!

Ven y disfruta de nuestra ciudad.


Come and enjoy our town!

Venez profiter de notre ville!

Presentación

Indartsua ere banaiz: oso aise alt

Oiartzun begirada batean



Kokapena

Oiartzun Gipuzkoako iparradean dago. Bere mugakideak Errearteria, Lezo, Lesaka, Goizueta eta Irun dira.

Erliebe-elementuak

Izen bereko haran batean dago Oiartzun. Bertatik, Oiartzun ibaia pasatzen da. Herri honek mendi asko ditu, horietako bat Aiako Harria da.

Bestelako informazioa

Oiartzunek pertsona ospetsu asko ditu, esate baterako: Xabier Lete, Alaia Martin, Jon Martin, Andoni Imaz, Alaitz Telletxea, Maider Zabalegi, Ander Lizarraralde,...

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

MENDIBILGO TXARA



Mendibilgo txarak 80.000 m² ditu. Belar asko dago eta, gainera, zuhaitz asko daude: Haritzak bereziki, baina mota gehiago ere badaude. Zuhaitz guzti horiek baso handi bat osatzen dute, leku batzuetan itxi-itxia da beste batzuetan ez.

Txarako ipar-ekialdean, jateko leku polit bat dago, mahai askorekin eta bide asko ateratzeko. Sartu eta hego-ekialdera joanda, zulo handi bat dago, eta aurrerago Oiartzun ibaia pasatzen da. Basoak, txara bat izanta, ez dauka haitzulorik baina zelai oso handi bat dago, lasaitzeko oso leku aproposa.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

URKABE MENDIA



Oiartzungo Urkabe mendiak, 260 metroko altuera du. Mendi hau orokorrean, Elizalde auzokoa da, baina Gurutze eta Arraguaren zati bat ere hartzen du. Bertan, zuhaitz mota ugari aurki ditzakezu, eta asko gainera!

Mendi gainean, gurutze handi bat dago Euskal Herriko ikurrina eta guzti, baina pixka bat behera eginda, iturri bat aurki dezakezu, eta hori dena Urkaberen barne sartzen da. Urkabeko eremuko ia guztia naturala da, baina gurutzea, iturria eta pixka bat gehiago gizakiak sortuak dira.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

OZENTZIOKO ERMITA



Ozentzioko ermita XIX. mendean eraiki zen, Iturriotzen, azken gerra karlistan.

Eraikina oso xumea da, herri arkitekturakoa. Hormak harlan-gaitzezkoak dira.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


BELOAGA GAZTELUA



Beloaga gaztelua 1200 urtee inguruan erabili zen, Erdi Aro garaian, Gurutze

Beloaga, landarez eta arrokez inguratua dago eta paretak harriz eginak dau

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Haurtzaro ikastolatik Urkabera joateko, Manuel Lekuona Hiribidetik aurrera egin, hirugarren irteera hartuaz biribilgunean.
Deskribapena

Banco Sabadell-en Yon Oñatibia etorbidea hartu, eta gero Rafael Pikabea hiribidetik GI-2134 arte joan, ezkerretara hartuaz. Oreretako bidera iristean Urkabe bidera joan.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Urkabetik Beloaga Gaztelura joateko, Aritzabalo bideko bidegurutzearen ondoren eskuineko Urkabe bidea hartu.

Deskribapena

Fraileren bidean zaudenean, GI-2134 errepidea hartu. Gurutze bidean sartu. Gurutzen, Toki Alai taberna ezkerrean utzi eta eskuineko Arkaleko bidea hartu. Momentu batean bide-atxur bat aurkituko duzu, bide horri jarraituz Beloaga Gaztelura joango zara.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Beloagatik Mendibilgo txarara joateko, jarraitu GI-3632 beherantz. AP-8a aurrean duzunean, ezkerreko Arkaleko bidea hartu.

Deskribapena

Lehenengo bidegurutzean bide-atxurra hartu. Belarretatik Aritzabalo bidera joan, eta Club Hipico Audelera joan. Larrezabaleta bidea jarraitu. Bidegurutzean, ezkerreko Aritzabalo bidea hartu. Jarraitu GI-2134 ezkerreko bidea. Landetxeko udal aparkalekuraka joan, Yon Oñatibia etorbidera. Gero, Manuel Lekuona hiribidea hartu. Makutso bideko biribilgunean Zuberoa jatetxerako bidea hartu. Aurrera eginaz Mendibilgo txaran zaude.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Mendibilgo txaratik Ozentzioko ermitara joateko, atzera egin.

Deskribapena

Zuberoa jatetxearen aurretik dagoen bidegurutzea zeharkatu eta Altzibar-Karrikara joan. Gero, Artikutzako bidea hartu, Sorondo bidea arte eta mendian gora eginez Ozentzioko ermita ederra ikusiko duzu.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Ozentzioko ermitatik Haurtzaro ikastolara bueltatzeko, Sorondo bidetik atzera egin, Artikutzako bidea arte.

Deskribapena

Hortik, Altzibar-Karrika arte aurrera egin. Han, GI-3631 hartu Makutsoko bidea arte. Amaitzeko, Makutsoko Bidetik gora eginez Haurtzaro ikastolan zaude, helmugan eta abiapuntuan.

Bisitarientzako gomendioak

Ez zaratarik egin.

Ez zapaldu edota hondatu lorerik!

Recoge los excrementos de tu mascota.

Trae la cámara para hacer fotos.

Do not sit on historic monuments!

Do not forget to bring an umbrella!